



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

EUSKARA AHOZ AHO

Aurten ere Korrika pasa zaigu herrian zehar, aurtengoan bitan gainera. Edizio guztietan bezala, Egape ikastolako kideok gure kilometroan parte hartu dugu. Ikastolaren izatearen oinarrietako bat euskara eta euskal kultura sustatu, bultzatu eta erabiltzearen alde egitea izanik, eskolako kide guztiok parte hartu dugu ekimenean familia, ikasle zein langileok. Euskararen aldeko konpromisoa dugu jomugan, euskararen transmisioaren aldeko urratsak ematea egunerokoan. Euskal kultura eta euskararen erabilera eskola-komunitate osoan indartzen eta hedatzen jarraituko dugu, ikastetxe esparrua gaituz eta herrira zabalduz. Korrika bezalako ekimeneak gurea den euskal nortasuna gizarteari zabaltzen lagunduko digu eta Egape Ikastolak horretan jardungo du aurrerantzean ere, euskararen aldeko aldarrikapenean aurrera egiten, alegia.

Un año más ha pasado la Korrika por nuestro pueblo, este año, además, en dos ocasiones. Como en todas las ediciones, los miembros de Egape ikastola hemos llevado el testigo en nuestro kilómetro. Uno de nuestros pilares es la promoción y el uso del euskara y transmisión de la cultura vasca. Por ello, hemos participado conjuntamente en la iniciativa toda la comunidad educativa de Egape Ikastola. Nuestro firme compromiso por el euskara hace que día a día trabajemos a favor de la transmisión de nuestra lengua. Seguiremos potenciando y extendiendo la cultura vasca y el uso del euskara a toda la comunidad, traspasando el ámbito escolar y ampliándolo al pueblo. Iniciativas como la Korrika nos ayudan a difundir nuestra identidad y Egape ikastola seguirá trabajando y reivindicando el uso del euskara.





ESPERIMENTAZIOA

IKASTE PROZESUAREN ARDATZ

Esperimentazioa norbanakoa gertuko testuinguruarekin elkarrekintzan aritzeko prozesua da. Prozesu horretan, haurrak bere inguruarekiko eta bere buruarekiko informazioa eta ezagutza eskuratzen ditu. Umeak badu bere ingurua ikertzeko berezko gaitasuna eta hori dela eta, esperimentatzeak aukera ugari eskaintzen dizkie haurrei.

Haurrak berezkoa duen gaitasun horri erantzuteko, Egape Ikastolan Haur Hezkuntzako espazioak horretara bideratzea dugu xede, espazioetan material desberdinak, errazak eta manipulagarriak eskuragarri jartzen dizkiegularik.

Ekintzan oinarritutako ikaskuntzaren hautua dugu egin eta esperimentazioaren bidez, haurrak bere ingurua modu librean erabili, ukitu, probatu, ikertu, sortu eta sentitu egingo du, errealitatea ulertu ahal izateko. Jakinda gainera, esperimentazioaren bidez haurrak bizipenetatik eta egoera konkretu eta errealitatik abstrakziorako bidea egingo duela, gure geletan materialak ere bide hori egiteko aukeratuak dira.



Esperimentazio-prozesua esanguratsua izateko, espazioak berebiziko garrantzia duela argi dugu Egape Ikastolan eta haurrak erdigunean jarriz eta euren beharrak identifikatuz, nortasunaren eraikitze prozesuan urratsak eman ditzaten izango dugu jomuga.

LA EXPERIMENTACIÓN

COMO EJE DEL PROCESO

DE APRENDIZAJE

La experimentación es un proceso de interacción del individuo con el contexto cercano. Un proceso en el que el niño o la niña adquiere información y conocimiento de su entorno y de sí mismo. Además, tiene una capacidad innata para investigar su entorno, por lo que experimentar les ofrece muchas posibilidades.

Para dar respuesta a esta competencia inherente, en Egape Ikastola pretendemos orientar los espacios de Educación Infantil hacia ella, facilitando materiales diferentes, sencillos y manipulables.

Tenemos hecha la elección del aprendizaje basado en la acción y la experimentación y mediante ellos, el niño o la niña utilizará, tocará, probará, investigará, creará y sentirá su entorno



de forma libre, para poder comprender la realidad. Sabiendo, además, que a través de la experimentación hará el camino de las vivencias y situaciones concretas y reales a la abstracción, en nuestras aulas los materiales también son elegidos para recorrer ese camino.

Para que el proceso de experimentación sea significativo, tenemos claro que el espacio juega un papel fundamental en Egape Ikastola y, poniendo a los niños y niñas en el centro e identificando sus necesidades, buscaremos que den pasos en el proceso de construcción de la personalidad.



EGAPE IKASTOLAKO IKASBIDAIA

URNIETAR ASKOREN OROITZAPENEAN

Egape Ikastolak urte luzeetan zehar, ikasleek ikastolako ibilbideari amaiera goxo bat emate aldera eta oroitzapen ederrak izan ditzaten, ikasbidaia bereziak antolatu izan ohi ditu. Urte askotan Europa aldera joan izan gara, beste batzuetan Pirinioak eta Katalunia bisitatu izan ditugu.

Gure ikasbidaiaaren azken helburua ondo pasatzea bada ere, helburu anitz lantzen ditugu egitasmoan zehar ikaskuntza prozesu bihurtuz. Lehenik eta behin, ikastolatik ikasleen partaidetza aktiboa sustatzen dugu, herriko hainbat ekimenetan ekintzaile izanik. Bestetik, eguneroko bizitzan oinarritutako kudeaketa ekonomikoan arduratsu izatera bideratzen ditugu (kontuak eraman, bankura joan...). Era berean, batzordeak antolatzera eta erabakiak modu demokratikoan hartzera bultzatzen ditugu. Eta, denbora luzeko proiektua izanik, ahalegina eta esfortzua ezinbestekoak direla ikasteko aukera ematen diegu.

Ikastola publikoa izanik eta denok aukera berdinak izan ditzaten, DBHko lau ikasturteetan ikastolak plangintza zabala osatua du bidaia finantzatu ahal izateko eta familiei zama ekonomikoa arintzeko. Burutzen diren jardueren artean, besteak beste, hauek ditugu: Neguko Azokako errifan antolaketa, Samieletako edalontzien salmenta, jolasgaraietako hamaiketakoak, kamiseten diseinua eta Gabonetako produktuen eskaintza.

EL VIAJE DE FIN DE ESTUDIOS, RECUERDO DE MUCHOS Y MUCHAS URNIETARRAS

Egape Ikastola lleva muchos años organizando el viaje de fin de estudios con el objetivo de finalizar la etapa escolar de nuestro alumnado con un recuerdo inolvidable. Muchas veces hemos viajado por Europa, y otras, por Pirineos y Cataluña.

A pesar de que el objetivo final de nuestro viaje de estudio es divertirnos, trabajamos múltiples objetivos a lo largo del proyecto convirtiéndolo en un proceso de aprendizaje. Desde la ikastola promovemos la participación activa del alumnado, siendo emprendedores en diferentes iniciativas de Urnieta. Por otro lado, orientamos al alumnado a ser responsables en la gestión económica, cuestión importante para la vida diaria (llevar las cuentas, ir al banco...). También les animamos a que organicen comisiones de trabajo y tomen decisiones de forma democrática. Y, siendo un proyecto de toda la etapa, les damos la oportunidad de aprender que la constancia y el esfuerzo son imprescindibles.

Con el objetivo de que todo el alumnado tenga las mismas oportunidades y siendo pública nuestra ikastola, se organizan diversas actividades durante los cuatro cursos de Secundaria para financiar el viaje y así reducir la aportación de las familias. Entre las actividades que se llevan a cabo se encuentran la organización de rifas de Neguko Azoka, la venta de vasos en Samielak, los hamaiketako del recreo, el diseño de camisetas y la oferta de productos navideños.



1989



2010



2012



2023



Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

